

## 1. ERANSKINA: PRE-TESTA ETA POST-TESTA "Amaia eta Mikelen istorioa"

### 1. Hurrengo istorioa irakurri.

Amaia eta Mikel animalia ugaztunei buruzko proiektu bat egiten ari dira. Amaiak, berak bakarrik, lanaren zatirik handiena egin du. Berak informazioa bilatu ez ezik, power pointa ere diseinatu du. Azkenean, lana nazkatuta amaitu du, bere ikaskideak, Mikelek, oso gutxi lan egin du eta. Amaiak, oso haserretuta eta amorratuta, boligrafoen potea lurrera bota du.

-Ez dut zurekin lan egin nahi! Ez duzu ezer egin! Kokoteraino nago! -oihukatu du Amaiak.

Baina Mikel ere oso haserre dago Amaiarekin:

-Ez dut ezer egin beti zuk nahi duzuna egin behar delako! Nazkatuta nago! Ergel hutsa zara! -erantzun dio Mikelek.

### 2. Hurrengo galderak erantzun.

1. Ados zaude Amaiak izan duen erreakzioarekin?

a) bai      b) ez

2. Zergatik?

---

3. Ados zaude Mikelek izan duen erreakzioarekin?

a) bai      b) ez

4. Zergatik?

---

5. Zure ustez, indarkeriaz jokatu du Amaiak?

a) bai      b) ez

Baietz erantzun baduzu, non ikusten duzu indarkeria?

---

6. Zure ustez, indarkeriaz jokatu du Mikelek?

a) bai      b) ez

Baietz erantzun baduzu, non ikusten duzu indarkeria?

---

7. Zure ustez, Amaiak beste modu batez jokatu ahal du arazoa konpontzeko?

a) bai      b) ez

Baietz erantzun baduzu, nola?

---

8. Zure ustez, Mikelek beste modu batez jokatu ahal du arazoa konpontzeko?

a) bai      b) ez

Baietz erantzun baduzu, nola?

---

9. Inoiz haserretu zara ikaskide batekin?

a) bai      b) ez

10. Noiz izan zen ikaskide batekin haserretu zinen azken aldia?

---

11. Zergatik haserretu zinen ikaskide horrekin?

---

---

12. Zer sentitu zenuen ikaskide horrekin haserretzean? Borobildu nahi dituzunak:

tristura

gorrotoa

beldurra

amorrua

poza

errua

Beste zerbait sentitu zenuen? Idatzi.

---

13. Zure ikaskideri esan zenion nola sentitzen zinen?

a) bai    b) ez

14. Ikaskide batekin haserretu zarenean, zerbait egin duzu arazoa konpontzeko?

a) bai    b) ez

Baietz erantzun baduzu... zer egin duzu?

---

---

---

## 2. ERANSKINA: INDARKERIA MOTAK IDENTIFIKATZEKO FITXAK

### 1. Istorioa:

Arrate, Mario, Saioa eta Unai oso lagun onak dira. Beti daude elkarrekin. Orain atsedenaldea daukate, eta jolastokira jaitsi dira. Baina ez dira ados jarri jolasteko.

(gutun-azal barruan dauden papertxoekin euren arteko elkarrizketa ordenatu)

### Galderak:

1. Indarkeria dago kasu honetan?

a) bai                      b) ez

2. Aurrekoan baietz erantzun baduzu, non ikusten duzu indarkeria?

---

3. Nola sentituko dira... ? Emozioa marraztu

Arrate:

Saioa:

Mario:

Unai:



### Gutun-azal barruko papertxoak:

-Arrate: Beti futbolekin jokatzen dugu. Zergatik ez dugu saskibaloian jokatzen?

-Mario: Zu tontoa zara! Oraindik ez dakizu Saioak eta nik saskibaloia gorrotatzen dugula?

-Saioa: Hori da... Saskibaloia kaka bat da! Ezta pentsatu ere!

-Unai: Beti zuek nahi duzuen egin behar dugu! Pikutara joan!

-Arrate: Bai! Zuetaz nekatuta nago! Tontolapikoak!

-Mario eta Saioa: Ze astunak zareten! Ba orduan ez dugu zuekin egon nahi! Gugandik alde egin!

**2. Istorioa:**

Gaur Plastika saioan bakoitzak bere gabonetako postala apaindu behar du. Horretarako, ume bakoitzak etxetik materiala ekarri du. Carlosek oso pegatina politak ekarri ditu. Hori dela eta, bere mahaikideek pegatinak eskatuko dizkiote.

(gutun-azal barruan dauden papertxoekin istorioaren bigarren zatia ordenatu)

**Galderak:**

1. Indarkeria dago kasu honetan?

a) bai                      b) ez

2. Aurrekoan baietz erantzun baduzu, non ikusten duzu indarkeria?

---

3. Nola sentituko dira... ? Emozioa marraztu

Carlos:                       Aratz:                       Sofia:

Mireia:                       Aner:

**Gutun-azal barruko papertxoak:**

-Pegatinaren bat utzi ahal dizkiguzu? -galdetu du Aratzek, bere mahaikideak.

-Ez. Erabiliko ditut nire postala egiteko.-erantzun du Carlosek.

-Nola ezetz? Baina soberan dituzu!- nabarmendu du Mireiak, beste mahaikide batek.

-Ezetz esan dudala! -esan du berriro Carlosek.

-Bale, bale, ba ikusiko duzu orduan... -esan dute Anerrek eta Sofiak, beste bi mahaikidek.

-Ikasgelatik atera ondoren, lau mahaikideek, Aratz, Mireia, Aner, eta Sofiak, Carlos bultzatu dute eta lurrera bota dute. Carlosek min handia hartu du eta negarrez hasi da. Besteek, ordea, barre egin dute.

-Carlos oso beldurtuta dago eta ez daki norengana jo.

**3. Istorioa:**

Asteazkenean Matematika azterketa egon zen. Nekane bi lagun, Lucia eta María, azterketan hitz egiten ari zirela ikusi zuen. Orduan, eskua altxatu zuen eta andereñoari esan zion. Beraz, andereñoa asko haserretu zen biekin.

-Baina bueno, Lucia eta Maria, soberan dakizue azterketetan hitz egitea debekatuta dagoela! Gaur jolastokirik gabe geratuko zarete, eta puntu bat gutxiago edukiko duzue biak azterketan! -esan du andereñoak oso haserre.

Hori dela eta, Luciak eta Mariak erabaki dute Nekaneri ez hitz egitea berriro, Nekane haiek biak salatu dituelako. Gainera, Nekaneren beste lagunei, Aitorri eta Idoiari, esan diete ez egoteko gehiago berarekin.

(gutun-azal barruan dauden papertxoekin euren arteko elkarrizketa ordenatu)

**Galderak:**

1. Indarkeria dago kasu honetan?

a) bai      b) ez

2. Aurrekoan baietz erantzun baduzu... non ikusten duzu biolentzia?

---

3. Nola sentituko dira... ? Emozioa marraztu.

Nekane:       Maria :       Idoia:

Lucia:       Aitor:

**Gutun-azal barruko papertxoak:**

-Ez egin kasu gehiagorik Nekaneri! - esan dute Luciak eta Mariak.

-Zergatik? -galdetu dute Aitor eta Idoiak.

-Salatari bat delako! Baita lagun txarra ere! -nabarmendu dute Luciak eta Mariak.

-Bai? Ba ordun guk ez dugu berarekin egon nahi! -erantzun dute Aitorrek eta Idoiak.

-Hori da! Bakarrik utzi behar diogu! - azpimarratu dute Luciak eta Mariak.

Beraz, Nekane orain bakarrik dago inork ez duelako berarekin egon ezta jolastu nahi. Bere lagun guztiek bakarrik utzi diote eta ez daki zer egin.

### 3. ERANSKINA: BIDEOAREN ESTEKA ETA GIDOIA

#### Negoiazioaren ezaugarriak lantzeko bideoaren esteka:

<https://www.youtube.com/watch?v=8N8BL58kAG8&t>

Egilea: Raquel Garcia Gimilio

#### Bideoaren gidoia:

Narratzailea: Amaia eta Mikel animalia ugaztunei buruzko proiektu bat egiten ari dira. Amaiak, berak bakarrik, lanaren zatirik handiena egin du. Berak informazioa bilatu ez ezik, power pointa ere diseinatu du. Azkenean, lana nazkatuta amaitu du, bere ikaskideak, Mikelek, oso gutxi lan egin du eta. Orduan, Amaiak Mikelekin hitz egitea erabaki du.

-Mikel, gauzatxo bat. Zergatik ez duzu lan egin? Nik ia lan guztia egin dut, eta gainera nik bakarrik. Oso nekatuta nago. -galdetu dio Amaiak Mikeli.

-Bai, zuk nik baino lan gehiago egin duzu, baina zuk erabaki duzulako zer egin eta nola egin. -erantzun dio Mikelek.

-Nola? Ez dut ulertzen. -galdetu du Amaiak harrিতuta.

- Hori Amaia.. nik ez dakit zer egin behar dudan. Galduta nago. -esan du Mikelek.

-Bueno, agian arrazoia daukazu. Nik uste dut ez dugula lan kopurua ondo banandu, ezta egitekoak bion artean erabaki. -onartu du Amaiak.

-Hori da. Eta andereñoak esan zuen hori ez zela taldeko lana egitea. -esan du Mikelek.

-Egia da. Begira, oraindik ekosistemari buruzko informazioa falta da. Zer deritzozu zuk falta dena bilatzen baduzu, nik dagoen informazioa power pointean sailkatzen dudan bitartean? -galdetu du Amaiak.

-Bale primeran. Eta bukatzean biok power pointa batera birpasatzen badugu eta apaintzen badugu? -galdetu du Mikelek.

-Perfektu. Ba ekingo diogu lanari!

-Aurrera!



#### 4. ERANSKINA: NEGOZIAZIO TEKNIKAK LANTZEKO FITXAK ETA ROLAK

##### 1. Istorioa:

Arrate, Mario, Saioa eta Unai oso lagun onak dira. Beti daude elkarrekin. Orain atsedenaldia daukate, eta jolastokira jaitsi dira. Baina ez dira ados jarri jolasteko.

Arrate: Beti futbolean jokatzen dugu. Zergatik ez dugu saskibaloian jokatzen?

Mario: Zu tontoa zara! Oraindik ez dakizu Saioak eta nik saskibaloia gorrotatzen dugula?

Saioa: Hori da... Saskibaloia kaka bat da! Ezta pentsatu ere!

Unai: Beti zuek nahi duzuen egin behar dugu! Pikutara joan!

Arrate: Bai! Zuetaz nekatuta nago! Tontolapikoak!

Mario eta Saioa: Ze astunak zareten! Ba orduan ez dugu zuekin egon nahi! Gugandik alde egin!

##### Galderak:

##### 1. Arazo hau indarkeriarik gabe konpondu ahal da?

a) bai      b) ez

##### 2. Nola konponduko zenukete arazoa negoziazio teknika erabiliz?

Arrate, Mario, Saioa eta Unai oso lagun onak dira. Beti daude elkarrekin. Orain atsedenaldia daukate, eta jolastokira jaitsi dira. Baina ez dira ados jarri jolasteko.

---



---



---



---



---



---



---



---



---



---

**ROLAK:**

**Arrate:** Nekatuta zaude jolastokian beti futbolean jokatzen duzuelako. Futbola gustatzen zaizu, baina saskibaloian ere jokatu nahi duzu, asko gustatzen zaizu eta.

**Mario:** Futbola maite duzu. Jolastokian denbora guztian egon nahi duzu futbolean jokatzen. Gainera, ez duzu saskibaloia gustuko.

**Saioa:** Zure kirolik gogokoena futbola da. Saskibaloia ez zaizu asko gustatzen, beraz, ez duzu horretan jokatzen.

**Unai:** Zure kirolik gogokoena saskibaloia da. Maite duzu. Baina ez duzu inoiz - futbolean jokatzen zure lagunak ez dute nahi eta.

**2. Istorioa:**

Gaur Plastika saioan bakoitzak bere gabonetako postala apaindu behar du. Horretarako, ume bakoitzak etxetik materiala ekarri du. Carlosek oso pegatina politak ekarri ditu.

-Pegatinaren bat utzi ahal dizkiguzu? -galdetu du Aratzek, bere mahaikideak.

-Ez. Erabiliko ditut nire postala egiteko.-erantzun du Carlosek.

-Nola ezetz? Baina soberan dituzu!- nabardu du Mireiak, beste mahaikide batek.

-Ezetz esan dudala! -esan du berriro Carlosek.

-Bale, bale, ba ikusiko orduan... -esan dute Anerrek eta Sofiak, beste bi mahaikidek.

Ikasgelatik atera ondoren, lau mahaikideek, Aratz, Mireia, Aner, eta Sofiak, Carlos bultzatu dute eta lurrera bota dute. Carlosek min handia hartu du eta negarrez hasi da. Besteek, ordea, barre egin dute.

Carlos oso beldurtuta dago eta ez daki norengana jo.

**Galderak:**

**1. Arazo hau indarkeriarik gabe konpondu ahal da?**

a) bai      b) ez

**2. Nola konponduko zenukete arazoa negoziazio teknika erabiliz?**

Gaur Plastika saioan bakoitzak bere gabonetako postala apaindu behar du. Horretarako, ume bakoitzak etxetik materiala ekarri du. Carlosek oso pegatina politak ekarri ditu.

---



---



---



---



---



---



---



---

**ROLAK:**

**Carlos:** Oso pegatina politak ekarri dituzu etxetik. Asko dituzu, baina ez dakizu denak erabiliko dituzun ala ez. Gainera, zure postala oso erakargarria izatea nahi duzu, eta denei pegatinak uzten badiezu zure postala ez da berezia izango.

**Aratz:** Carlosen pegatinak ikustean zuk ere nahi dituzula konturatu zara. Baina ez daukazu pegatinik. Etxetik brillantina ekarri duzu, soberan daukazu, baina uste duzu pegatina batzuekin zure postala oso polita geratuko dela. Horrexegatik, Carlosi pegatinak eskatuko dizkiozu.

**Mireia:** Zure postala egiteko material asko ekarri dituzu: mota desberdinetako paperak, kolore desberdinetako errotuladore bereziak, aldizkarietako zatiak... Carlosek, ordea, pegatinak ekarri ditu eta oso politak dira. Asko ditu eta zuk batzuk nahi dituzu.

**Aner:** Ez duzu etxetik materiala ekarri. Zure ikaskideek bai, eta baten batek materiala uztea nahi duzu. Gehien gustatu zaizuen Carlosen pegatinak dira.

**Sofia:** Brillantina duten errotuladore bereziak ekarri dituzu. Zure errotuladoreak asko gustatzen zaizkizu baina postala pegatina batzuekin hobeto geratuko litzateke. Hortaz, Carlosi pegatina batzuk eskatuko dizkiozu.

### **3. Istorioa:**

Asteazkenean Matematika azterketa egon zen. Nekane ikusi zuen bi lagun, Lucia eta María, azterketan hitz egiten ari zirela. Orduan, eskua altxatu zuen eta andereñoari esan zion. Beraz, andereñoa asko haserretu zen biekin.

-Baina bueno, Lucia eta Maria, soberan dakizue azterketetan hitz egitea debekatuta dagoela! Gaur jolastokirik gabe geratuko zarete, eta puntu bat gutxiago edukiko duzue biak azterketan! -esan du andereñoak oso haserre.

Hori dela eta, Luciak eta Mariak erabaki dute Nekane ez hitz egitea berriro, Nekane haiek bi salatu dituelako. Gainera, Nekane beste lagunei, Aitor eta Idoari, esan diete ez egoteko gehiago berarekin.

-Ez egin kasu gehiagorik Nekane! - esan dute Luciak eta Mariak.

-Zergatik? -galdetu dute Aitorrek eta Idoiak.

-Salatari bat delako! Baita lagun txarra ere! -nabarmendu dute Luciak eta Mariak.

-Bai? Ba ordun guk ez dugu berarekin egon nahi! -erantzun dute Aitorrek eta Idoiak.

-Hori da! Bakarrik utzi behar diogu! -azpimarratu dute Luciak eta Mariak.

Beraz, Nekane orain bakarrik dago inork ez duelako nahi berarekin egon ezta jolastu. Bere lagun guztiek bakarrik utzi diote eta ez daki zer egin.

### **Galderak:**

#### **1. Arazo hau indarkeriarik gabe konpondu ahal da?**

a) bai      b) ez

#### **2. Nola konponduko zenukete arazoa negoziazio teknika erabiliz?**

Asteazkenean Matematika azterketa egon zen. Nekane ikusi zuen bi lagun, Lucia eta María, azterketan hitz egiten ari zirela. Orduan, eskua altxatu zuen eta andereñoari esan zion. Beraz, andereñoa asko haserretu zen biekin.

-Baina bueno, Lucia eta Maria, soberan dakizue azterketetan hitz egitea debekatuta dagoela! Gaur jolastokirik gabe geratuko zarete, eta puntu bat gutxiago edukiko duzue biak azterketan! -esan du andereñoak oso haserre.

---



---

---

---

---

---

---

---

---

**ROLAK:**

**Nekane:** Lucia, Maria, Idoia eta Aitor zure lagun onenak dira. Asteazkenean, Matematika azterketan Lucia eta Maria ikusi zenituen hitz egiten. Orduan, andereñoari esan zenion, hitz egitea debekatuta dagoelako. Andereñoak Lucia eta Maria zigortu zituen. Hori dela eta, Lucia eta Maria zurekin haserretu dira. Baina zu ez zara haserretu. Euren laguna izaten jarraitu izan nahi duzu.



**Lucia:** Matematika azterketan Mariarekin hitz egiten zenuen. Nekane, zuen lagun batek, ikusi zintuzten. Nekane andereñoari esan zion. Orduan andereñoak haserretu zen zuekin. Hori dela eta, zu oso haserretuta zaude Nekanerekin.

**Maria:** Matematika azterketan Luciarekin hitz egiten zenuen. Nekane, zuen lagun batek, ikusi zintuzten. Nekane andereñoari esan zion. Orduan andereñoak haserretu zen zuekin. Hori dela eta, zu oso haserretuta zaude Nekanerekin.


**Idoia:** Denok dira zure lagunak. Lucia eta Mariak esan dizute haserretuta daudela Nekanerekin, Nekane andereñoari esan ziolako azterketan hitz egiten ari zirela.

**Aitor:** Denok dira zure lagunak. Lucia eta Maria esan dizute haserretuta daudela Nekanerekin, Nekane andereñoari esan ziolako azterketan hitz egiten ari zirela.


**5. ERANSKINA: PRE-TESTAREN ETA POST-TESTAREN EMAITZAK**



### Zergatik zaude ados / desados Amaiak izan duen erreakzioarekin? (postest)




### Zergatik zaude ados / desados Mikelek izan duen erreakzioarekin? (pretest)








### Zergatik zaude ados / desados Mikelek izan duen erreakzioarekin? (postest)




### Zure ustez, Amaiak indarkeriaz jokatzek badu, non ikusten duzu indarkeria?



### Zure ustez, Mikelek indarkeriaz jokatzen badu, non ikusten duzu indarkeria?



### Nola jokatu ahal du Amaiak beste modu batez arazoa konpontzeko?



### Nola jokatu ahal du Mikelek beste modu batez arazoa konpontzeko?

